

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ebazpena		54/2025
		ekainaren 30a
XEDEA	Ebazpen honen akats zuzenketa: 30/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 12koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana.	
ERREFERENTZIA	NOFYR kodea: 723	
UNITATE KUDEATZAILEA	Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua Baso Plangintzarako Atala Helbidea: González Tablas 9, beheko solairua Telefonoa: 848 42 67 33 Helbide elektronikoa: planificacion.forestal@navarra.es	

2024ko urriaren 9ko 168/2024 Ebazpenaren bidez, honako laguntza hauen oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi ziren 2025eko ekitaldirako: basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan egiten diren inbertsioetarako laguntzak (2014-2020 LGP-Landa Garapenerako Programaren 08.06.01 azpineurria).

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 2025eko maiatzaren 12ko 30/2025 Ebazpenaren bidez, guztira 4 titularri eman zitzaizkien laguntzak, laguntza-eskabide baten uko egitea onartu zen, eta sei laguntza-eskabide ukatu ziren, aurrekontu-kontsignaziorik ez zegoelako.

Hala ere, ebazpenaren testu hori ez dator bat kontabilizatu eta kontu hartu zenarekin (eta azken hori da zuzena). Izan ere, tramitazio administratiboan testua ez zen behin betiko bertsiora pasatu eta eguneratu, laguntzak eman aurretik egin beharrekoak diren kontrol guztiak egin ondoren.

Laguntzak kudeatzen dituen organoak akats hori atzeman du, eta hurrengo akats-zuzenketa proposatzen du, ebazpenaren edukia bat etor dadin kontabilizatu eta kontu hartutakoarekin, hori baita zuzena.

Adierazitakoarekin bat, eta erabiliz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa onesten duen azaroaren 15eko 255/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidaten eskudantziak,

EBAZTEN DUT:

1.- Ingurumeneko zuzendari nagusiak 2025eko maiatzaren 12an emandako 30/2025 Ebazpenaren 1. puntua zuzentzea:

Honako hau dioen tokian:

4 espedienteri ematea 2025eko ekitaldian eskatutako laguntzak, inbertsioak egiteko basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan (2014-2020 LGParen 08.06.01 azpineurria). Eskatzaileek ebazpen honen I. eranskina osatzen dute.

Dirulaguntza, guztira 451.682,18 eurokoa, 740002/74200/7709/456703 "2014-2020 LGENF LGP" partidari egotziko zaio. Espedientearen xehetasunak hemen daude: "II. eranskina: Eskatzaileen zerrenda, balorazio-irizpideen arabera ordenatua, laguntzak ematen edo ukatzen diren zehazten duena (basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan egiten diren inbertsioetarako 2025eko laguntzak)". Eragile pribatuentzako dirulaguntzak. Basogintzako industria"

451.682,18 €-ko zenbateko horretatik, 140.021,48 €, gastu hautagarriaren % 31, LGENFren aurrekontutik ordainduko da, 080301020841114 lerroaren kontura: Lehen eraldaketarako eta merkaturatzeko inbertsioak (Basogintzako eta industriako enpresentzako dirulaguntzak, 197 tipayu, 08.06.01 eragiketa-zenbakia).

Onuradunek laguntzei uko egiten ahalko diete, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean. Horretarako, ukoaren berri eman beharko diote Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari.

Honako hau esan behar du:

4 espedienteri ematea 2025eko ekitaldian eskatutako laguntzak, inbertsioak egiteko basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan (2014-2020 LGParen 08.06.01 azpineurria). Eskatzaileek ebazpen honen I. eranskina osatzen dute.

Dirulaguntza, guztira 447.122,72 eurokoa, 740002/74200/7709/456703 "2014-2020 LGENF LGP" partidari egotziko zaio. Espedientearen xehetasunak hemen daude: "II. eranskina: Eskatzaileen zerrenda, balorazio-irizpideen arabera ordenatua, laguntzak ematen edo ukatzen diren zehazten duena (basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan egiten diren inbertsioetarako 2025eko laguntzak)" Eragile pribatuentzako dirulaguntzak. Basogintzako industria"

447.122,72 €-ko zenbateko horretatik, 138.608,04 €, gastu hautagarriaren % 31, LGENFren aurrekontutik ordainduko da, 080301020841114 lerroaren kontura: Lehen eraldaketarako eta merkaturatzeko inbertsioak (Basogintzako eta industriako enpresentzako dirulaguntzak, 197 tipayu, 08.06.01 eragiketa-zenbakia).

Onuradunek laguntzei uko egiten ahalko diete, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean. Horretarako, ukoaren berri eman beharko diote Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari.

2.- Ingurumeneko zuzendari nagusiak 2025eko maiatzaren 12an emandako 30/2025 Ebazpenaren 3. puntua zuzentzea:

Honako hau dioen tokian:

Laguntza emateko baldintza guztiak betetzen dituzten 6 espedienteri laguntza ukatzea, aurrekontu-kontsignaziorik ez dagoelako, eranskin honetan adierazten den bezala: "II. eranskina: Eskatzaileen zerrenda, balorazio-irizpideen arabera ordenatua, laguntzak ematen edo ukatzen diren zehazten duena (basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan egiten diren inbertsioetarako 2025eko laguntzak)", zeina ebazpen honen parte baita.

Honako hau esan behar du:

Espediente bati laguntza ukatzea, egiaztatu baita ez dituela betetzen deialdiaren oinarriak, laguntzak izan beharreko eragin pizgarriari dagokionez, onuraduna inbertsioan lanean hasi baita laguntza-eskaera aurkeztu aurretik.

Laguntza emateko baldintza guztiak betetzen dituzten beste 5 espedienteri laguntza ukatzea, aurrekontu-kontsignaziorik ez dagoelako, eranskin honetan adierazten den bezala: "II. eranskina: Eskatzaileen zerrenda, balorazio-irizpideen arabera ordenatua, laguntzak ematen edo ukatzen diren zehazten duena (basogintzako teknologietan nahiz basoko produktuen transformazio, mobilizazio eta merkaturatzeko jardueretan egiten diren inbertsioetarako 2025eko laguntzak)", zeina ebazpen honen parte baita.

3.- Ingurumeneko zuzendari nagusiak 2025eko maiatzaren 12an emandako 30/2025 Ebazpenaren 3. puntua zuzentzea:

Honako hau dioen tokian:

Partidako eskuragarrira 28.317,82 euro pasatzea, hori baita deialdi honetarako baimendutako zenbatekoaren eta emandakoaren arteko aldea.

Honako hau esan behar du:

Partidako eskuragarrira 32.877,28 euro pasatzea, hori baita deialdi honetarako baimendutako zenbatekoaren eta emandakoaren arteko aldea.

4.- Dirulaguntza honen emaitzak argitara ematea Nafarroako Gobernuaren web korporatiboan, laguntzen katalogoko laguntza-fitxan.

5.- Ebazpen honen berri ematea Ekonomia Aferetarako Bulegoari, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari, Ekonomia eta Ogasuneko kontu-hartzailletza delegatuari, NBEUFren eta LGENFren Ordainketak Burutzeko Bulegoari, Erakunde Ordaintzailearen Koordinazio Atalari eta Landa Dibertsifikaziorako eta Garapenerako Zerbitzuari, behar diren ondorioak izan ditzan.

6.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

7.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA, Ana Bretaña de la Torre.